

PRENTSA OHARRA

Ontziak bildu eta tratatzeko Jundizko planta publikatzea eskatu du Agurainek

Hondakinen tratamendurako Europako hierarkiarekin bat egiteko, SDDR sistemako plan pilotuak ere eskatu ditu osoko bilkurak, gerora lurralde osoko kuadrilletan zabaltzeko

Agurain. 2024-09-27 | Aguraingo osoko bilkurak ontzi arinak birziklatzeko Jundizko instalazioaren kudeaketa publikoa bultzatzeko azterketa egitea eskatu du. Era berean, Diputazioari eskatu dio hondakinen biltegiatze eta itzultze sistema integrala (SDDR) ezartzeko plan pilotu bana garatzea Lautadan, herri tipologia ezberdinei erreparatuta.

Izan ere, Jundizko planta 2012tik UTE batek kudeatzen du, eta aurrean amaituko da esleipena. Instalazio hori, FCC eta Yarritu enpresek osatzen duten UTEak kudeatzen du, eta enpresa honen fakturazioa bildutako ontzi kopuruaren arabera denez, zenbat eta plastikozko ontzi gehiago bildu, orduan eta etekin handiagoak izango ditu enpresak.

Baina hori ez da hondakinak kudeatzeko modu egokia. Europatik ezartzen da hondakinak tratatzeko ekintzen hierarkia: horrela, prebentzioa lehentasunezkoa da, eta azpitik datoz berrerabiltzea eta birziklatzea, adibidez. Beraz, plastikozko ontzi arinak biltzea ezin da etekin ekonomikoaren menpe egon, ontzi horiek murriztea lehentasuna izan beharko litzatekeelako.

Kudeaketa publikoa

Hala, Aguraingo Udalak onartu duen mozioak Jundizko instalazioaren kudeaketa publikoa izateko azterlanak egitea proposatu du. Kudeaketa publikoa izanda, funtzionamendu hobea eta eraginkorragoa izango du instalazio honek, eta hori da bidea hondakinak murriztu, berrerabili eta birziklatzeko, eta Europatik datozen irizpideak Araban ere betetzeko. Halaber, EH Bilduk Diputazioari eskatu dio SDDR sistema bultzatzea: Biltegiatze eta itzultze sistema integralak (SDDR) erakutsitako emaitza bikainak balioan jarri behar dira. Balio ekonomiko bat lotzen zaio ontzi bakoitzari, kontsumitzaileak saltokietara itzul dezan sustatzeko, gaikako bilketa bultzatuz.

Arabako Hondakinen Planean jasota dago ontzi eta plastiko kopurua murriztu behar dela, eta prebentzio neurriak hartu behar direla, baina argi dago planean jasota dauden helburuak lortzetik oso urrun gaudela.

NOTA DE PRENSA

Agurain solicita la publicación de la planta de recogida y tratamiento de envases de Jundiz

El pleno también pide planes piloto del sistema SDDR para extenderlos después a las cuadrillas de todo el territorio con el objetivo de cumplir la jerarquía europea de tratamiento de residuos

Agurain. 2024-09-27 | El pleno de Agurain ha solicitado la realización de un estudio para impulsar la gestión pública de la planta de reciclaje de envases ligeros de Jundiz. Asimismo, ha reclamado a la Diputación el desarrollo de sendos planes piloto para la implantación de un sistema integral de almacenamiento y devolución de residuos (SDDR) en la Llanada Alavesa, atendiendo a las diferentes tipologías de población.

Se da la circunstancia de que la planta de Jundiz está gestionada desde 2012 por una UTE, cuya adjudicación finalizará este año. La facturación de la citada UTE formada por las empresas FCC y Yarritu depende del número de envases recogidos por lo que cuantos más envases plásticos se recojan, mayor beneficio obtendrá la empresa.

Según se recoge en la moción, esa no es una buena forma de gestionar los residuos. Desde Europa se establece la jerarquía de las acciones de tratamiento de residuos, de forma que la prevención es prioritaria y por debajo vienen, por ejemplo, la reutilización y el reciclaje. Por lo tanto, la recogida de envases ligeros de plástico no puede depender de beneficios económicos, ya que su reducción debería ser una prioridad.

Gestión pública

Por eso, se propone realizar un estudio para que la gestión de la instalación de Jundiz sea pública. Con una gestión pública, esta instalación va a tener un funcionamiento mejor y más eficiente, y es la vía para reducir, reutilizar y reciclar los residuos, y cumplir también en Araba los criterios que vienen de Europa. Asimismo, se pretende que la Diputación Foral de Araba impulse el sistema SDDR para poner en valor los excelentes resultados mostrados por el sistema integral de almacenamiento y retorno (SDDR). Se asocia a cada envase un valor económico para promover que el consumidor lo devuelva a los comercios, favoreciendo la recogida selectiva.

El Plan de Residuos de Araba contempla la reducción de envases y plásticos y la adopción de medidas preventivas, pero es evidente que estamos muy lejos de alcanzar los objetivos recogidos en el Plan.